

HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A. REN
KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko maiatzaren 30ean

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko maiatzaren 23ko datarekin, HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A. ren (HARANA-KONTRASTA) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.
Rosa Madina andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.
Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Enrique Monasterio Beñaran jaunak, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi du.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Marques Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratu txikien zerrenda.*
2. *Beste gai batzuk.*
3. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei HARANA-KONTRASTAk esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere. Kontratu txikien zerrenda ikusita, zenbait gomendio egitea erabaki da.

2. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.

3. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A. ren Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.

Javier Marqués González jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea

Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria